

BATXILERGOA

teknologikoa A eta D ereduak
humanistikoa A eredua

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi eta erdi mailak
A eredua

Informatika
Elektrizitatea
Merkataritza
Administrazioa

D ereduan ere!

AURREMATRIKULA

Apirilaren 23tik maiatzaren 4 rarte(barne)

Lehendakari Agirre 184 Tfnoa. 944028000



www.elorrieta-errekamari.com

2007ko apirila
98. zkia. Doan


Zuri Baltza xake taldea

Euskaraz egin ezinik

Artxandako funikularra

Haizea Isasa

"Mugaz bi aldeko euskaldunon artean
elkar ezagutza falta da"




Pontoia eta Kañuetako pasealekua (1875)

Ibaizabal eskuinaldetik ikusita. Errebuelta ikusgarria egiten eban orduan. Gaur egun askoz be leunagoa da, uriolei biderik ez emoteko. Ibaiaren ezker aldean gaur egun Abusu auzoa dago. Argazkian fabrika gitxi batzuk eta etxe txikiak baino ez. Atzean Ollargango trenaren zubia dago, 1863an eginekoa, eta atzerago Malmasin mendia. Ibaiaren eskuin aldean, ostera, kañuetako pasealekua (behean, ezkerrean) Atxuritik Pontoiko errotara eta urune fabrikera eroaten ebana.

Argazkia 'Bilbao 1860-1895. Pedro Telesforo de Errazquin' liburutik hartu dogu. Euskal Museoak plazaratu zuen 2000an.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia	4	▶ Inkesta	19
▶ Artxandako Funikularra	5	▶ Mahatsberriak	20
▶ Begoña eta euskerea	8	▶ Mendia: Trasmosomos	25
▶ Zuri Baltza	10	▶ Hezkuntza: Mad Science	26
▶ Euskaraz egin ezinik	12	▶ Antzerkia familian	28
▶ Elkarrizketa: Haizea Isasa	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30

Beterinaridoxa dekogu oingoan portadan, hamen ganadue gitxi dekogule, hara Iparraldeko partera joan jaku biherrien. Ta diñosku han bixi be euskeraz bixi leikela.

Kanpora joan biher da ba ganadue ta euskerie topaten? Bertonen berton leiduten dotzagunari kasu egin ezkeran baiezkoa, baie ezeko kontue be kontestau lei trankilamentien.

Anbularidxoetan-eta euskeraz ezin dala egin kejavu direz batzuek, informe ta guzti egin daurie. Norbera medikue ikusi barik bixi dalez, ez dogu konfirmaziñorik botako, baie medikueri betik halango señorito kategoridxe emoten ixin jakola, ba ez da estrañatekoa baten bat ondiño ha siñistute ibilitie, ta, klaro, hangoak be estrañaten direz inor euskeraz datorrenien. Dana dala, probau egin gure ixin nendun lehengo baten, ta anbulatoridxora joan, ta preguntau nendun aber egidxe badan han inok ez dakidxela euskeraz. Ta preguntau nontzena hasi jatan kesi perfila, kesi euskaltegi, kesi ez dago deretxorik, kesi ez dakidxela zenbet botike hartu deittuzen hori tentsiño hori aguantateko, kesi ez dakitt zenbet kontu gehidxago... total, ni entzun ta entzun, hantxe bota zosten kaparradiegaz akabuen ez nendun jakin euskeriena egidxe bazan ala zeletxes pasaten dan... ontxe memoria egiten ez naz kapaz esateko euskeraz ala erderaz egin bazosten be... Ahal ixin nendunien karran eskapau, ta allakuidaus.

Medikuek euskeraz atenditen badotzu ez dakitt, ta probateko gogoa kendu ein jatelez, Berton leiduten parau naz, ta ikusi dot beste gauze batzuek bai ein leikezela euskeraz hamen.

Santutxun dago leku bet teatro klasiek emoten dauriezena, familidxe guztidxeri arkalegaz emoten ei dotzie, euskeraz ganera, gure ixin ezkeran.

Beste batzuek zientzie ta halangoan ganien olgetan edo ibilteko modue emoten daurie, ikistiarren baie ondo pasaute. Hareik be euskeraz eitten daurie.

Honeik Bertonekoen lagunek ein daurie inbentoa liburu bet koxiten dozu bibliotekan, leidu, eta gustau ezkeran gure dozunari erregalau ahal dotzezune merkiago erosite, horreik liburuak danak euskeraz. Listie ikusi dot ta ez dekotez leidute, aber baten bat erregalaten badostazue laletxe, ze norbera hamen hilién hilién kategoridxeo literaturie erregalaten, ta bueltan ez da ezebe etorten. Aber ba!

Total, medikuenien iguel kostauko da euskerie sartutie, baie beste leku batzuetan sartuten dabil tontamentien. Iguel teatron klasien, zientziegaz olgetan edo bibliotekan ez doguz topako medikue ta anbulatoridxoko kaparra, baie iguel hareik kejavu direzenak bez.

Tire ba, Berton leiduten segidute dudie etorri jat Begoñeko Republikeko Etzien euskeraz egin ahal bazan, Begoñeko etzietan barriz, ein eitten zala diñourie,.. Oingoan asuntua hainbeste kanbiau da?

Akabuen, hamen nabilela Artxandako txakurrek geittu doste, aber beterinari dxon bat ezetuten badot euskerie dakidxena, ze berak be konprobau ein gure dau kontue. Esan dotzet bat ezetuten dotela, baie han mapako goiko puntén dabilela biherrien..

GURE BAZTERRAK

HUERTAS DE LA VILLA-URIORTU KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizateko Matiko auzoan topatu geinke Uriortu kalea; egin-eginean bere, Bilboko Udalak euskal izena emon arte, 'Huertas de la Villa' erdal izenagaz ezagutu genduan kalea dogu hau. Kale honen hasiera Tiboli kalean dago eta amaiera, barriz, La Salveko plazan.

Izenaren eretzean esan behar dogu, lehenengo eta bat, 'Huertas del Campo Volantín' izena jaso ebala; izan bere, Bilboko Udalak lurralde hau hartu eban erren-

tan, eta gero, XVI. gizaldian, zehatz-mehatz, 1594. urtean, erosi egin eban.

Urteak garrenean, 1810. urtean, Bilboko Udalak lurraldearen zatiak saltzen ekin eutsen, eta salmenta haren helburua izan zan Bilboko urigintzari aurre egitea.

Orube hau, jatorriz, Begoñako Errepublikakoa zan, eta Bilboko Udalaren hasierako asmoa izan zan ortuariak saltzea: handik emon jakon euskal izena.

GOTZON LOBERA REVILLA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



BILBAO
EUSKARAZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ALDATS JALEA

Artxandako funikularra ederto egokitu da
XXI. mendeko errealitatera

Gure hiritik Artxandara heltzeko bide guztien artean, bada bat, oinei atsedena emanaz, Tiboli aldetik Artxandako bihotzera eramaten gaituena. Hiru minututan, %45eko desnibela duen aldapan gora, funikularrak aukera ederra paratzen digu bertatik, Begoña, Deustua, Abando, Zazpi Kaleak,... beste modu batera ikusteko.

Testua: *Nerea Aburto*
Argazkiak: *Iñigo Azkona*

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta.:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Eneritz Ibarrondo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Dabi Piedra,
Itxaso Perez
Ane Zabala

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,
Jose Otazua,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Ane Zabala
LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98
ALE KOPURUA:
1.900

Asteko edozein lan egunetan funikularrak bere plazatik goizeko zazpiak eta laurdenetan irten izaten da Artxandarantz. Ordutik aurrera, eta hamabost minuturo, gora eta behera ibiliko dira zerbitzuko bi bagoiak; batek gora egiten duen bitartean, besteak behera.

BERTONek bidaia egin zuen eguna oporretatik hurbil zegoen lan eguna izan zen, eta goizeko hamarrak eta laurdenetan irten behar ziren bagoiak uste baino beteago zeuden. Adineko emakume talde berritsu eta animatua, motxiladun gaztea eta turista goiz-

gorantz goazen heinean berdea nagusitzen da.

HISTORIA APUR BAT

Artxandako funikularrak 1915ean egin zuen lehen bidaia bezeroek oso paisai ezberdina izango zuten ikusgai. Garaian, bilbotar askok Artxandara egun pasa joateko ohitura zuten, bertan zeuden kasino edota txakolindegiek eskaintzen zituzten atseden eta jolaserako aukerak aprobetxatuz. Gaur bezala, funikularra hiriko zarata eta estugunetik urruntzeko garraibidea zen.

Obraren kostua orduko

daketek eragin zituzten kalte larriak eraginez, zerbitzua 1938ko uztailearen 18ra arte etenda egon behar izan zen. Baina honez gain, badaude beste bi data Artxandako Funikularraren historian oso esanguratsuak direnak. Alde batetik 1976, orduan gertatu baitzen, kable eragilea aldatzean izandako akatsaren ondorioz bagoi bat beheko geltokirantz amildu zela lau langile barruan zituela. Istripuak zerbitzua luzaroan bertan behera uztea ekarri zuen. Beste alde batetik 1983 ahaztu ezinezko urtea izan zen. Zazpi urteko geldialdiaren ostean zerbitzua atzera jarri zen

ranbarriko eskolaren parean gutxi gora behera, geltokia izateko ametsa izan dute auzotar askok. Baina momentuz ezin da itxaropen handirik eduki, ikerketa batek eta aurre proiektuek egin ezina dela ondorioztatu baitute, trenbidea bertan bikoizteak eta tunel baten ondoan egoteak dakartzan zailtasunengatik.

Aldiz, aspalditik beharrezkoak ziren beste hobekuntza batzuk egiten dihardute aspaldi. Geltokiak hobetzeko plan bati jarraituz, elbarrituei sarrera errazteko beheko geltokiko eskailerak desagertuko dira eta horien ordez aldapa gutxiko

bezain laster, bidaiariak arinetan desagertu egiten dira. Azken urteetan funikularreñ erabiltzaileen kopuruak gora egin du: 2006an 4.582.603 bidaiarik erabili zuten, 1.322 bidaiari egunean alegia. Artxanda mendira igotzeko arrazoirik nagusienak kirola egin, naturaz gozatu edo bertako taberna zein jatetxeetan osteratxo egitea baldin bada, ez da harritzekoa funikularra gehien erabiltzen den hilabeteak ekaina eta uztaile izatea. Hala ere, oraindik ez da izotz pista martxan zegoeneko marka gaudizterik lortu.

Bidaiarien jatorriari buruz, esku-

Bueltako bidaia hasi behar dugunean gurekin batera doazen bidaiari asko atzerritarrak dira; turismoak erabilera berria eman omen dio 'funiari'. Berrito ere txirrinak jo eta martxan jartzearekin batera, estuatsun txiki bat sentitzen du bidaiariak. Nola ez sentitu, bertatik, hain erraldoiak omen diren Bilboko proiektu eta eraikuntzak, txiki ikusten direnean? Zalantza barik, bidaiariak aurrez aurre duen 226,49 metroko desnibelak beste neurri bat ematen dio hiriari. Eta antzeko zerbait pentsatuko zuten agian, 2006eko urrian, BERTONek kontatu zuen



tiarren bat; hamabost pertsona inguru hiru konpartimenduetan banaturik; askorik ez, guztira 70 lagun sar daitezkeela kontuan izanez gero.

Funikularra martxan jarri baino lehen, tinbre batek jo du geltokian, eta, atek itxi eta gero, astiro-astiro bere bidea hasi du. Geltokiko tunel ilunetik irten eta 'funi'ak Salbeko zubiaren azpialdetik pasatzen da. Ezkerraldean Ciudad Jardín, eta eskuinaldean Maurice Ravel etorbidearen hasiera ikusten da. Kotxeak, etxeak, jendea... hiriaren irudia apurka-apurka urruntzen doa eta

488.407,30 pezetakoa izan zen (gaur egungo 2.935,39 euro) eta funikularrak, ordurako martxan zegoen lgedokoaren araudia izan zuen jarraibide. Arau horien artean, bitxienak, mozkorre eta 'usain txarreko' paketeak edo su-armak zermatzatenei sarrera debekatzea, edota biraoka, erasoka edo gizalege barik jokatzeko zutenak funikularretik kanpora ateratzeko eskatzeko bidaiariek zuten eskubidea.

1915ean martxan hasi zenetik, funikularrak ez zion bere zerbitzua eskaintzeari utzi, Bilbok Gerra Zibilean jasan zuen setiora arte. Bonbar-

abian urte horretako apirilean; baina, abuztuko uholdeen ondorioz, lokatza, haitzak eta abar jausi ziren beheko geltokira, eta urak nasa hondatu eta bagoiak erdiraino estali zituen. Urte bereko azaroaren 4an jarri zen berriro abian zerbitzua.

BERRIAK

2007ra itzulita, bidaiak aurrera jarraitzen du eta, hiriko azken blokeak eskuinaldean uzten direnean, trenbidea bikoiztu eta hurbil-hurbiletik kontrako bidea egiten duen bagoiarekin gurutzatu egiten da funikularra. Toki horretan, Zurba-

arrapalak ipiniko dira. Goiko geltokian aldiz, bidaiariak jaisten diren lekuan, plataforma horizontalak egingo dira, hango eskailerak kenduta. Guzti horrek, bagoien beheko konpartimenduetako ezkerreko atek ia metro bateko zabalera izan ditzaten eta gurgil aulkiek ibiltzen diren erabiltzaileek funikularrean hobetu mugitzeko aukera izan dezaten.

GORA ETA BEHERA

Castañosetik Artxandara funikularraren bidaiak hiru minutu irauten du eta, gora heldu eta atek zabaldu

nalde zein Mungialdetik datozen erabiltzaileena azpimarratzen dute funikularreko arduradunek, izan ere, erabiltzaile horiek, kotxea Artxanda mendian utzi eta Bilboko erdiguneraino funikularrez hurbiltzen baitira. Funikularraren historiaren hasieran gertatzen zenaren bertsio berriztatua da. XX. mendeko hasierako urte haie-tan, mendiaren bestaldeko baserritarrek, funikularra merkatuan salduko zituzten ortuariak jaisteko edota motorrak konpontzen eta bigantxak hiltegiara eroateko erabiltzen zuten; gaur egun, bizikletak dira garraiatu ahal diren 'adardun' bakarrak.

bezala, Artxandako Funikularra abian jarri zeneko 91. urteurrena zela eta, eskaileretatik gora egin zen lasterketan parte hartu zuten korrikalariek, %25 eta 45 bitarteko aldapa igo behar izan zuten eta.

Bidaia bukatu da eta berriro hiri handiko eraikuntzen artean gure txikitasuna sentitu dugu. Funikularrak, bitartean, hamabost minuturo, eta gabeko hamarrak arte (hamai-kak udako asteburu eta jaiegunetan) bere bidea egiten jarraituko du, Bilbotik Artxandara, Artxandatik Bilbora, azken 92 urte hauetan bezala.

BEGOÑA ETA EUSKERIA

Espainiako Errepublikaren eguna ospatu zuten apirilaren 14an, urteroko legean. Begoñak ere bere errepublika eduki zuen, baita Errepublikaren Etxea be. Beste errepublika modu zen hura, jakina, Begoñako Errepublika Begoñako Udala baitzen, eta bere etxea, udaletxea.

BEGOÑAKO ERREPUBLIKA ETA BERE ETXEA



Baten batek harrিতa irakurriko zuen martxoko BERTONen Joseba Gallagaren kontakizunean pilotan jokatzeko Begoñako Errepublikako etxearen azpian. Halaxe entzungo du Begoña herri independente zenean, Begoñako errepublika esaten zela. Berdin Deustua, Abando eta antzinako beste elizateekin.

Errepublikaren izena nondik datorren azaltzeko, hona 1821ean Bilboko Udalak idatzitako testu argigarria. "Siendo pues la antigua constitución política de Vizcaya enteramente diversa de la de Casti-

lla en este punto sus leyes forales lexos de excluir al Pueblo de la administración pública se la confiaron privativamente; de suerte que los cuerpos municipales, que eran aristocráticos en Castilla, eran rigurosamente democráticos en Vizcaya, y titulándose allí con toda propiedad Ayuntamientos, no podía darseles aquí el mismo nombre sin violentar la genuina significación de las voces; y por eso la palabra Ayuntamiento no se encuentra una vez siquiera en los fueros antiguos ni modernos de Vizcaya y el uso vulgar llamaba repúblicas a las Antei-

glesias, y casas de la república a las consistoriales".

Hain demokratikoak ere ez ziren, baina tira, errepublikak bai! Hiriak edo uriak -erdaraz villa- ez ziren gainerako herriak Bizkaian errepublikak ziren.

Ironikoa ere bada, Bilboko Udalak testu hori anexio ahaleginean idatzi zuen, Begoñako Errepublika deuseztatzeko saioan alegia. Izan ere, Lege Zaharraren garaian Bilbok ezin izan zuen albo-herriok irentsi. Begoña 1870 eta 1925ean bereganatu zuen, epe bitan. Baina, 1820-23 bitartean Espainiako Konstitu-

zioa Bizkaian indarrean egon zenean Bilboko Udalak Espainiako Kongresuari eskatu zion Abando, Begoña eta Deustuaren anexioa.

Eskaria egindakoan, beste bide batetik ere ahalegindu ziren eta euren idazkiak Bizkaiko Diputazioari igorri zituzten Bilboko udal kargudunek. Une hartan -1821- ez zuten anexio osoa eskatu, baizik eta "el aumento de su jurisdicción hasta dos mil varas en toda su circunferencia". Horrela egin izan balitz, jakina, Deustua zen kalterik gutxien jaso

behar zuen herria, baina Begoñak eta Abandok lur sail zabal-zabalak galdu behar zituzten.

Hiru elizateok, jakina, ezetaz erantzun zuten. Begoña zen hiruritarik erneen zegoena. 1821eko martxoan bertan Espainiako Kongresura idazkia bidal izuen "solicitando que se despreciase cualquiera pretensión que se hiciese para desmembrar su territorio y agregarlo a Bilbao".

Bilboko Udalak anexio osoa eskatuz erantzun zuen baina denbora bere kontra zihoan. 1822ko maiatzetik Bizkaia gerra giroan zegoen eta 1823ko apirilean Konstituzioa kendu eta foru sistema atzera



be indarrean jarri zuten. Horrela amaitu zen ahalegin hura.

Hala ere, Bilbok ez zuen etsi. Hurrengo aukera gerra karlistarekin batera agertu zitzaion. Liberalen gotorleku bihurtuta, 1834 eta 1835ean gestioak berriro zituen hiribilduak hiru errepublikak bereganatzeko. Orduan ere, alferrik.

ETXEA

Begoñako Errepublikako Etxeak errepublika bera baino gehiago iraun zuen. Izan ere, 1957 urte aldean eraitsi zuten, anexioa izan eta 32 urte geroago. Begoñako Udaletxea basilikaren atzealdean zegoen eta Begoñako tunelak egiteko bota egin zuten. Eraiki, oster,

1856an eraiki zuten, Julian Pastor arkitektoak egindako diseinuarekin. Azpian arkupea zeukan eta bertan pilotan jokatu ohi zuten. Bigarren karlistadan, Begoñako elizarekin gertatu zen bezala, bonben ondorioz kalteak sufritu zituen, baina hala ere zutunik iraun zuen.

Orrialdeotako argazki biak Euskal Museoak 2005ean egindako erakusketatik hartuta daude. Kasu bietan Errepublikako Etxea ikusten dugu bere izena luzitzen duela. Lehenengoan, herriko txistulariak plazatik irten dira. Bestean, Begoñako Andra Mariaren omenezko kartel argiduna erakusten du Errepublikako Etxeak. Biak ala biak, 1900 urte inguruko irudiak dira.



Halderapeko
euskal kultur gunea

www.halderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

ZURI-BALTZA, XAKEA OHOREZKO MAILAN

Santutxuko taldeak euskal elitearekin jokatu datorren denboraldian

Santutxuko Zuri-Baltza Xake Taldea Euskadiko Lehenengo Mailako txapelduna da eta, ondorioz, datorren urtean Ohorezko Mailan jokatu du, kategoria gorenean. Gainera, auzoko xakelariekin jokatzeko dute gehienbat, beren harrobitik irteerako gazteei lehentasuna emanez.

Testua: Dabi Piedra
Argazkiak: Zuri-Baltza

Datorren denboraldian Ohorezko Mailan topatuko dituen beste taldeak ez bezala, Zuri-Baltza ez da klub profesionala. Santutxuko talde apala da, ez dauka erakunde publikoen dirulaguntzarik, ezta babeslerik ere eta, ondorioz, finantziario bide bakarra bazkideen kuotak dira. Aurrekontu txikiari aurre egiteko, etxekoekin jokatzearen aldeko apustua egiten dute urtero eta aurten, adibidez, Jon Angulo izan da Santutxu edo ingurukoa ez den jokalaria bakarra eta xakelari gisa Zuri-Baltzan hazi ez den bakarra. Oso urrunekoa ere ez da



Angulo, Uribe Kostakoa, eta taldeak daukan izar nagusia da, Bizkaiko txapelduna partida azkarretan. Harrobiaren alde egiteak fruituak

Mailan, gorengoan alegia, jokatu dutela esan nahi du horrek. Ohorezko Mailan jokatzeko ez da



batere samurra izango, ordea. Aurkari guztiak profesionalak dira eta talde boteretsuenek mundu zabaleko Maisu Handiak eta Nazioarteko Maisuak dituzte. Euskadiko beteren jarduneko txapeldun eta Zuri-Baltzako presidente Jose Manuel Garciak aitortu duenez, mailari eustea zaila izango da, "ia ezinezkoa", baina polita izango da euskal xakearen elitearekin indarrak neurtzea. "Rey Ardid, Sestao eta batez ere Gros Euskal Herriko xakearen gailurrean daude, haien dazkaten dirua eta jokalaria bikainak ez daude gure esku", esan du Garciak, baina ez zaio etsipenik



igartzen. Azken finean, Zuri-Baltzaren aurrekontuarekin Ohorezko Mailan aritzea bera saria da.

HARROBIAREKIN LANEAN

Gainera, klubaren helburu nagusia harrobia da, xakea atsegin duten ume eta gazteei ikasteko eta praktikatzeko aukera ematea. Noizean behin, ikastaroak eskaintzen dituzte eta eskoletatik ere deitzen diete, umeek eskolaz kanpoko jarduerak gisa xakearen aukera izan dezaten. Jose Manuel Garciak baikor ikusten du etorkizuna, "ume eta gazte asko hasi dira guregana etortzen azkeneko urteotan eta batzuk oso abilak dira". Dozena bat ume ari dira Zuri-Baltzan orain, gazteenak hamabi urtekoak.

Xakea modan omen dago Bizkaian. Guztira, ia berrogeita hamar jokalarik osatzen dute kluba gaur egun. Tartean badaude umeak, gazteak, nagusiak eta beterenak, gizon eta emakumeak, baina lehiaketarako taldeak osatzekoan denak nahastuta aritzen dira: "Xakean ohikoa den bezala, guk ere trebetasunaren arabera egiten ditugu taldeak, adinari edo sexuari erreparatu gabe", presidentearen esanetan. Bost talde dauzka Zuri-Baltzak, horietatik onena datorren denboraldian Ohorezko Mailan ariko da, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako klub handienekin batera. Santutxuaren beste lau taldeek Bizkaiko Ligan parte hartzen dute.

TRADIZIOA

Zuri-Baltza tradizio handiko kluba da Bizkaian, 1965ean sortu baitzen. Jose Manuel Garcia gaur eguneko presidentea sortzaileetako bat izan zen. Gogoratzen duenez, Santutxun bazegoen xake zaletuen talde txiki bat lehendik ere, 1965era arte klub gisa eratu ez bazen ere. Ordutik, hainbat txapelketa irabazi dituzte, banaka zein taldeka, baina garai txarrak ere igaro dituzte. Orain dela zazpi bat urte, esaterako, desagertzeko zorian egon zen taldea, kide asko beste talde batzuetara joan zirelako. Egoera horrek, jokalaria eta diru falta ekarri zituen baina, zorionez, ez ziren desagertu eta gazte berriak



Zuri-Baltza 1971

iritzi ahala, taldea indartzeko joan da berriro. Orain dela bizpahiru urtetik hona, Jose Manuel Garcia izan da presidentea, hasieratik klubeko kidea izan ostean.

Zuri-Baltza Xake Taldeak ikastaroak, hitzaldiak eta txapelketak ere antolatzen ditu. Bilboko Aste Nagusian, egunero, xakearekin lotutako jarduerak egiten dituzte Areatzan, eta baita Santutxuko jaietan ere. Horrez gain, etorkizunari begira, kanpoko xake talderen batekin, elkar ezagutzeko topaketak egin nahiko lituzkete. Espainia aldeko klub batekin kontaktuak hasiak dituzte eta topaketa Aste Nagusian ospatzea nahiko lukete baina oraindik ez daukate ezer lotuta. Proiektu berezi hori gauzatu zein ez, etorkizun polita iragaritzen dio Jose Manuel Garcia presidenteari Zuri-Baltzari. "Ume eta gazte ugari daukagu, xakean dohain handiak dituztenak eta ilusioa ere badugu", esan du baikor; Garciak gauza bakarra eskatzen du, "ea gazteren batek nire lekukoa hartzen duen Zuri-Baltzaren zuzendaritzan, belaunaldi aldaketa erabatekoa izan dadin".

D E R T O N D U G U

EUSKARAZ EGIN EZINIK

BEHATOKIAK 2006AN JASOTAKO HIZKUNTZ ESKUBIDEEN

URRAKETA BATZUK GUREAN GERTATU DIRA



Hizkuntz Eskubideen Behatokiak 2006an 1.099 espediente ireki zituen, gehien-gehienak euskaraz egiteko eskubidearen aurkako erasoak zirela medio. Euretarik ia mila kexak ziren. Izañ ere, herritarrek telefona daukate euskara bazterten dituzten praktikak salatzeke. Euretarik batzuk gure artean gertatu ziren eta txostenean jaso dituzte.

Testua: **H. O.**

Argazkiak: **Berton / Iñigo Azkona**

Euskaldun guztiok gara jakitun Euskal Herrian ezin dela euskara hutsez bizi. 2007an ere ez. Gure eguneroko bizitzaren gorabeherek argiro erakusten digute ia minuturo. Dela dendara joatea, dela medikuarengana agertzea, auto aseguru paperak egiterakoan zein metroko doako prentsa esku-ratzerakoan... euskara ahaztu eta erdaraz egin behar dugu. Urte asko dira euskara -eta berarekin batera euskaldunok eta euskal herritar erdaldunak- Euskal Herrian bazter-

tuta dagoela. Horregatik, 'beti' horrela izan delako, pazientziaz eramaten ditugu egoera horiek, 'normalak' direlakoan.

Jakina, ohikoak izango dira, baina ez bidezkoak eta are gutxiago behin betikoak. Herritarren kontzientzia suspertzeko eta euren kexei bidea emateko asmoz, azken urteotan Hizkuntza Eskubideen Behatokiak 'euskararen telefona' paratu du guztion esku. Eta bide horretatik heldu dira hamaika hizkuntza eskubide urraketa berri.

Azken urteotan lez, 2006ko datuak txosten baten batu eta plazaratu berri ditu Behatokiak. Eta 2005ean baino %34 gehiago izan dira herritarrek telefonoz emandako kexak.

GUREAN BE BAI

Txostenak Euskal Herriko bazter guztietako kontuak dakartza, berdin administrazio zein enpresa pribatuekin lotuta. Hizkuntza eskubideen urraketa kasu horietariki batzuk gure artean gertatu dira. Guk txostena arakatuta lau kexa

berton

topatu ditugu. Euretarik hiru osasun zerbitzuekin lotuta daude eta laugarrena Bilboko Udalarekin.

Eta hain justu, Osakidetzak euskarari -eta bide batez euskaldunoi-jaramonik ez egitea azkenaldion egiten diharduen oposaketa prozesuan pil-pil egon da. EHEk eta beste talde batzuek ozen salatu dute lanpostu berrietarako euskara ez dela derrigorrezkoa. Behatokiak berak be, bere txostenean, beste horrenbeste egin du: "Osakidetzan abian jarritako Enplegurako Lan Eskaintzak ez dio erantzun eskubideen urraketa".

Bilboko euskaldun guztion esperientzia antzekoa izango da, seguruenez. Osakidetzan euskara arrotza eta mirari santu baten bidez ez bada izan, medikuarenean sekula ez digute euskaraz berbarik egin. Hala ere, badira ahalegina egiten duten herritarrak. 2006an, Bolueta-Sagarminagako osasun-etxera medikuarekin hitzordua hartzeko euskaraz deitu



Lerro honen gainean, Solokoetxeke auzoa. Goian, euskararen aldeko ekintza Uribarrin.

zuen herritar bati erantzun hau eman zioten: "En castellano que yo no entiendo y si no llama más tarde".

Gordina bada ere, ez da hori Bolueta-Sagarminagako osasun-etxean euskaraz eginez gero gerta daitekeen txarrena. Begitu bestela, 2006ko martxoaren 31n goizeko bederatziak aldera bertara joan zen euskaldun bati zer gertatu zitzaien. Harreran zegoen langileari analisiak egiteko nora joan behar zuen galdu zion, euskara. Langilearen erantzuna hauxe izan zen: "Mi padre aragonés, yo aragonesa, castellano". Herritarrak esan zion: "Eta? Hori da erantzuteko modua?", eta langileak berriz "Que no te entiendo".

Herritarrak argi utzi zion erdal-

Agapi

Dekorazioa eta eskaiola
Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak

Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1 ezk
Tlfnoa: 944336916 - Sakelekoa: 651709114
SANTUTXU - 48006 BILBO

santutxuko herriko taberna

Iturriaga 96.

Gosari bereziak:
Kalea + pintxoak 1,50 €.

Euskal Herria
AURRERA!!

Garaizar

JESUS GAINDEZ, Nº 10
Tlf: 94 473 02 25 - GARAIJAR - BILBO

ERTON DUGU

DUGU



dun hutsa dela modu onean esan izan balio erdaraz esango ziola. Orduan beste langile bat agertu zen eta euskaraz hartuko ziola agindu zion. Itxaroten zegoen bitartean, beste langile bat lehenengoarengana hurreratu zen eta honela esan zion: "¡Serán maleducados!

Ven que no sabes y siguen hablando, y dale, y dale... De verdad, ¡Qué asco!

Osakidetzako kexak Solokoetxetik ere heldu dira. 2006ko azaroaren 15ean herritar bat Solokoetxeko osasun-etxera hurreratu zen errezetak jasotzera eta medikuarentzako ordua eskatzera. Arratsaldeko zazpi eta erdiak aldera ziren. Langileari honela egin zion berba: "Arratsaldeon, euskaraz badakizu?". Eta hona jaso zuen erantzuna: "pues mira, a estas horas ya no, ya estoy muy cansada para andar pensando en euskera".

EUSKARAZ

EGITEAGATIK, KARTZELA

Behatokiaren txostena irakurri ostean nekez pentsa daiteke XXI. mendean gaudela. 2006an, Bilboko instrukziozko 4. epaitegiak sei hilabeteko kartzela zigorra ezarri zion herritar bati, istripu bati buruzko testigantza euskaraz eta interprete barik eman nahi izan zuelako epailearen aurrean. Gasteizen Justizia funtzionario batek euskaldun bati "hostia bi" eman behar ziola esan zion euskaraz egin nahi izateagatik. Beste herritar batek ia gau osoa Deustuko polizia etxean eman zuen ertzainek euskaraz ez zekitelako. Eta zergatik ezin ditugu sakelako telefonoak euskaraz eduki? Zerrenda luzeko perla batzuk baino ez dira. Behatokiak kexa guztiak batu, aztertu eta, ganora dutela iritzi gero, dagokion instituzio edo enpresari bidaltzen dizkio, erantzuna eman dezaten. Gero eta gehiago dira erantzuten dutenak, batzuetan errakuntza onartuz eta berriz ez gertatzeko erabakiak hartuz eta, beste batzuetan, euren burua zurituz. Eta badira sekula erantzun ez dutenak.

BILBOKO UDALA

Osakidetzak batu ditu kexa gehien gurean, baina beste instituzio batek ere zer esana eman du. Izan ere, Bilboko Udalak beste protesta bat eragin du. Kasu honetan herritar bat kexu agertu zen Santutxuko Juan Gardeazabal kaleko Bilboeszena aretoko jardueren informazioa erdara hutsez plazaratzen zelako. BERTONEK jakin duenez, honez gero informazio hori ele bitan ematen du Bilboeszenak, euskaraz eta erdaraz.


Bilboko Udalak denetara zortzi protesta bildu zituen iaz. Baina txosten honetako datuez gain, Kontseiluak Euskal Herriko udalen hizkuntz politika neurtu eta plazaratu du. Eta Iñaki Azkuna buru den instituzioak nota txarra atera du: 2,1 puntu baino ez, Gasteiz eta Donostiaren atzetik eta Iruñea eta Baiona baino hobeto. Kontseiluak egin dizkion kritiken artean, euskararen ordenantzarik eza da aipagarrienetakoa. 2007an, Bilbo da Hego Euskal Herriko hiriburu bakarra euskararen udal araudirik ez duena. Hori da marka!

2007ko apirila - 98. zkia.

e
l
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a

HAIZEA ISASA

"Mugaz bi aldeko euskaldunon artean
elkar ezagutza falta da"



Baxe Nafarroako euskararen doinua dario Haizea Isasaren berbetari. Ez da harritzekoa, Santutxukoa den arren, azken hiru urteak Garazi eta Baigorri aldean eman ditu eta. Albaitaria da ogibidez eta hango bazter guztiak korritu ditu hiru urteotan. Guk bisita egin diogu eta animalien artean topatu dugu Uharte-Garaziko baserri eder baten.

*Testua: Hektor Ortega
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Kalekoa zara, Santutxukoa. Noiztik datorkizu abereekiko interesa? Betidanik. Txiki-txikitatik. Txikitan zer izan nahi duzun galdetuta nik beti: al baitaria. Eta gero bidea segitu besterik ez dut egin. Albaitaritz ikasi nuen.

Eta ikasketak amaituta, Artzain Eskolara joan zinen. Zergatik? Artzaina izatekotan ala formazioa osatzeko asmoz?

Formazioa osatzera, batez ere. Albaitaritz munduan ardiak interesatzen zitzaizkidan gehien. Artzain Eskolan galdetu eta bertara joan nintzen.

Zelako esperientzia izan zen?

Oso ona. Kar, kar. Han denetarik zegoen, baserriko jendea zein kalekoa. Hiru hilabete eman nituen teoria ikasten Arantzazun eta gero beste horrenbeste praktikak egiten.

Non egin zenituen zuk?

Hemen. Galdetu ziguten ea inork nahi zuen Ipar Euskal Herrira etorri eta nik baietz esan nuen. Garazi ondoko herri batean egin nituen, Gamarten.

Zelan moldatu zinen artaldea gobernatzeko?

Egia esan, ez nuen lan askorik egin, kar, kar. Dena eginda zeukaten. Gehiago izan zen ikasi eta ikusi haiek nola egiten zuten.

Eta Gamartekoaren ostean erabaki zenuen Baxe Nafarroan gelditzea?

Bai. Hemen animalia gehiago dagoela ikusi nuen, jende gehiena abeltzaintzan bizi dela eta, ondorioz, aukera gehiago zegoela hemen lan egiteko. Galdetu nuen eta baietz, behar zute-la norbait abereei odola hartzeko.

Zenbat urte daramazu hemen?

Hirugarrena da hau.

Eta zehazki zertan ibili zara?

Ni baserrikeri baserri nabil animalietan odola hartzen. Behietan, ardietan eta txerrietan. Eta gero etxe horietan beste lan txikiren bat bazegoen albaitariak egiteko, ba nik egiten nuen.

Hamaika etxetatik pasatuta zaude, beraz...



Bai. Garazi eta Baigorriko kantonamenduetako etxe guztietatik pasanaiz. Oso bizipen ona izan da, lan horren alderdirik onena. Etxe guztietatik pasatzea, jende asko ezagutzea, hemengo errealitatea ikustea, ...

Albaitari baserrikeren zerbitzura beraz. Zelan dago baserria Baxe Nafarroan?

Hemen jende gehiena baserrikeri bizi da. Ez daukate beste industriarik, Bizkaian gertatzen den bezala. Baina azkenean ere, edo kanpoko arrazak sartzen dituztelako edo autobidea egin nahi dutelako edo jendeak lane-

ra kanpora joan behar duelako, beherantz doaz. Baserri txikien lekuan esplotazio handiagoak gelditzen ari dira.

Gazte jendea baserrikeri dabil?

Bai. Hemen edo kanpora doaz lan egitera edo, bestela, gehiengo baserrikeri gelditzen dira gurasoen lekuko hartzen. Badira gazteak ez direnak hortaz bizi, baina ez dago aukera asko-askorik. Edo zerbitzua edo baserria.

Ipar Euskal Herriko Laborantza Ganbara sortu dute baserrikeriek.

Bere eragina igartzen da?

Bai. Jendea horretan ari da. Laborari batzuei lagundu die baina oraindik ere zer egin handia dago.

Hemen albaitari batentzat zeintzuk dira lanik arruntenak?

Hemen gehiena ardia da. Baigorri eta Garaziko kantonamenduetan gehiena da. Batez ere azaroan, abenduan eta urtarrilean izaten dira erditze guztiak eta hor dago lanik handiena: zesareak, ... Gero behietan ere bada lana baina gehiena ardiak dakar.

Kilometro asko egiten dituzu egunean?

Bai. Segun zein herritara joan behar duzun azkenean. Hirurogei kilometro egunean gutxienez. Hori da lanbide honetako alderdirik txarrena, beti zaudela autoan sartuta.

Paraje ederrak ere ikusiko zenuen ez?

Bai, bai. Eta elurrarekin ere, kar, kar. Gaurkoa bezalako eguraldi ederra dagoenean, kanpoan oso ondo. Baina euria, hotza edo elurra denean ere kanpoan egon behar duzu.

Baserrikeri euskaraz egiten duzu?

Bai. Frantsesez ulertu egiten dut baina hitz egin, minimoa. Eta herri guzti-guztietan euskaraz egiten dut.

Eta? Problema barik?

Bai. Problema gehiago dago gazteekin. Zaharrek, denekin euskaraz. Gazteak dira problema gehiago dutenak. Batzuek etxean euskara entzun bai, baina ez dute inoiz egiten. Gazteak dira euskara galtzen ari direnak.

Orain kantonamendu biok ez ezik, Ipar Euskal Herri osorako egingo duzu lan, ezta?

Bai. Baita Biarnorako ere. Hor bai aldatu egingo da, frantsesa beharko dut. Hemen bertan, Donapaleu edo Iholdi aldean euskara gutxiago egiten da. Muga linguistikotik zenbat eta hurbilago, orduan eta euskara gutxiago. Ikusten da etxeetara zoazelarik frantsesa gehiago egiten dela.

Izan ere, zu etxeetara sartzen zara...

Bai, baina batzuk pozten dira zu euskaraz hasten zarenean. Eta beste batzuek ez dute inoiz egiten baina nirekin egiten dute. Lan berri frantsesez egin beharko dut.

Bidarrain bizi zara. Zelako aldeketa da Santutxutik Bidarraira?

Alde onak asko dira: lasai bizi zara, mendia etxe ondoan daukazu, ... Baina lana bukatu eta pote bat hartzerik ez dago, edo lagun batekin gelditu bazara beti autoa hartu behar duzu... Baina bestela, Santutxun baino hobeto, kar, kar.

Mugaz bi aldeko euskaldunekin egoten zara. Alde handiak daude oraindik gure artean? Urruti gaude?

Hurbiltzen ari gara. Urteetan muga hori egon da eta bere eragina du. Azkenean, bakoitzak bere kanpoko kulturaren eragina du, guk espainolea eta hemengoek frantsesena. Kontu batzuetan hurbiltzen ari gara baina beste batzuetan urruti gaude. Elkar ezagutzea da. Hori falta zaigu. Donostiakoak Bilbora joango dira baina igual ez dira Donibane Lohi-

tzunera joango, askoz hurbilago dagoen arren. Muga psikologikoa da.

Hego Euskal Herriko turistik datoz?

Aste Santuan. Denak batera. Onerako ote den? Segun nola datozen. Batzuk ezagutzera eta ikustera etortzen dira, umil. Baina beste batzuk harrotuta datoz. Elkarri errespetatu eta irakatsi behar diogu, bakoitzak bere erritmoarekin.

Ipar Euskal Herria asko aldatu da hiru urteotan? Herriak txikiak dira baina bizitasuna badago, ezta?

Bai, baina gero eta gutxiago. Jende zaharrarekin hitz egiten duzu eta beraiek ere lehen bazeukaten kanpoan egoteko ohitura. Orain inork ez dauka. Edo orain lau festa handi daude eta kito. Bestela etxean gelditzen dira. Ez dira irteten. Euskara ere, gazteek ez badute egiten hor galduko da. Eta bitartean kanpotarrak inbaditzen ari dira.

Asko dira etxea erosten duten arrotzak ala?

Bai. Kanpoko jende asko, frantsesak eta ingeles batzuk ere. Bigarren erresidentzia gisa nahi dute. Eta gero kasu arrunta da nirea: alokairuan bizi



naiz baina udan etxetik irten behar dut alokatzen dutelako. Eta, ondorioz, hemen ere gazteek etxea lortzeko sekulako problemak dauzkate. Etxe asko hutsik egon arren, inork ez ditu alokairuan eman nahi. Abuztuan libre eduki nahi dituzte. Horiek dira hemengo arazoak. Eta azpiegiturak ere bai, jakina.

Azpiegitura? Zein? Errepidea?

Bai. 2x2 egin nahi dutela Nafarroatik. Hemendik ikusita badirudi ez dutela egingo. Baina baita Miguel

Sanzek mugaraino egingo duela. Eta horra iristen bada lau karrileko autobidea, jendea beldur da gero hemen ere egingo dutela.

Lan berrian hasi behar duzu elkarrizketa argitaratu orduko. Zertan?

Ardien zentroa da eta ardiekin bakkarik egiten du lan: intseminazioa, ekografiak, hobekuntza genetikoa, ... Eta ardien gai-xotasun larrienak artatzen ditu...

Dollyrik dago inguruan?

Ez, kar, kar, oraingoz ez. Intseminazioa bai, Hegoaldekoa baino aurreratuagoa, esango nuke. Edo behintzat emaitzak hobek izaten dira.

Ikuspegi profesionaletik, beraz, perspektiba zabalagoak Hegoaldean baino?

Bai. Horixe da gehien motibatzen nauena hemen geratzeko. Ikasteko askoz ere aukera gehiago daukazula. Hainbeste animalia daudenez, gauza gehiago ikusten dituzu. Bizkaian ere aurreratu da, baina ez hemen bezala. Hemen jende gehienak ekografiak egiten ditu ardietan. Horrek urteko produkzio guztia baldintzatzen du. Loteak egin ditzakezu, hauek orain erdituko dira, hauei jateko gehiago eman behar zaie, besteei gutxiago, ... Etxe askotako ekonomia hortik bizi da.

Athleticek zelai berria egingo du. Hobeto jokatuko ote dute lehoiek San Mames Barrian?

JON (SANTUTXU)

EZ DAUKA ZER IKUSIRIK ZELAIAREKIN. ONA IZANGO DA ATHLETICENTZAT ETA BERE SOZIOENTZAT. BAINA JOKOA HOBETZEKO EZ DU BALIO!



AINTZANE (SANTUTXU)

BERDIN DA. ZELAIA HANDIAGOA EDO TXIKIAGO, BERDIN DA. JOKATZEKO MODUA DA INPORTANTEA. ETA SAN MAMES ONDO BADAGO EZ DAKIT ZERTARAKO ALDATZEN DUTEN.



ASIER (SANTUTXU)

ZALETU GEHIAGOREN BABELSA EDUKIKO DUTE, GUTXIEZ. ETA OSO ZALEGO ONA DAUKAGUNEZ, ZELAI BERRIA ERE BETEKO DA. BERAZ, BEGIONEZ IKUSTEN DUT.



OIHANE (SANTUTXU)

NIRE USTEZ ZAHARTUTA DAGO SAN MAMES. EZ DAKIT BERRIA BEHARREZKOA DEN, BAINA SAN MAMES ZAHARREGIA DA.

RODRIGO (TXURDINAGA)

BERDIN JOKATUKO DU ATHLETICEK. ZELAI BERRIA ONDO DATOR KLUBARENZAT, BAINA HOBETO JOKATZEKO ZELAIA EZ DA GAKOA.



SILVIA (TXURDINAGA)

ATHLETIC BETI DAGO SUFRITZEKO. LEHEN EZ, BAINA HURA PASATU ZEN. ZELAI BERRIA EGINGO DUTE SUFRITZEN JARRAITZEKO.



ANA (SANTUTXU)

EZ DAUKA ZER IKUSIRIK JOKOAREKIN. BAINA ZELAI BERRIA ONDO IKUSTEN DUT. HORI BAI, EZ DA BEHARREZKOA.



LUIS (TXURDINAGA)


LEHENGO LEPOTIK BURUA JARRAITUKO DUTE. BAINA IDEIA ONA DA. JENDE GEHIAGO JOANGO DA, ZALETU GEHIAGO ETA BETE EGINGO DA, SEGURU.



Bederatzi galdera labur

Filma: Ez naiz zinezalea.
Kantua: Ken Zazpiren
'Zapalduen olerkia'.
Mendia ala hondartza: Biak.
Lekua: Anboto.

Izena: Garazi.
Jatekoa: Pasta.
Kirola: Futbola.
Animalia: Txakurra.
Ametsa: Askatasuna



PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOAI

SARTU ZURE
PUBLIZITATEA HEMEN

Telf. 94 473 54 48

Garraioak



Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Bilboko Udalak eta Asapalak euskarazko liburuak sustatzeko kanpaina hasi dute elkarrekin

Udal liburutegian ehun liburu paratu dituzte maileguan hartzeko eta merkeago saltzeko

Bilboko Udalak eta Asapala kultur elkarteak, Topagunearen laguntzaz, 'Irakurri, Gozatu, Oparitu' kanpaina abiatu dute. Helburua euskarazko irakurtzaletasuna sustatzea da. Liburuak irakurtzeko eta oparitzeko aukera emango dute. Hamalau herritan egingo da denetara.

Begoñako udaltegiko liburutegietan, euskarazko 100 liburu egongo dira aukeran, kanpainarako berenberegi jarritako apaletagian. Liburu horietatik, 90 berdinak izango dira herri guztietan, eta beste 10, berriz, herrian bertan aukeratutakoak. 90eko multzoaren aukeraketa Patxi Zubizarreta idazleak egin du, hainbat irizpideren arabera (adin-tarte guztientzako liburuak egotea, genero literario guztiak, genero ikuspegia, nobedadeak eta klasikoak...). Ondoan, ordenagailu batek aukera emango du egitasmoaren webgunean sartu eta liburu guztien inguruko informazioa jasotzeko (sinopsia, egileen biografia, jasotako kritikak...).

Egitasmoan parte hartu nahi dutenek, ehun liburu horietako bat aukeratu, maileguan hartu eta irakurtzeko aukera izango dute. Liburuak itzulitakoan, liburuaren inguruko iritzia jasotzeko fitxa simple bat bete beharko dute. Fitxa betetakoan, irakurleak deskontu txartela jaso-



ko du liburuak besteren bati oparitzeko.

OPARI

Txartel horrekin, irakurri berri duen liburuak %25eko deskontuarekin erosi ahal izango du. Asapalak kideek, gainera, are deskontu handiagoa izango dute,

%50ekoa hain zuzen ere. Liburuak erosteko mahatsorriek Santutxu-Maceda liburutegira jo beharko dute. Zein nahi duen esan ostean, erosleak lagunaren helbidea eta postala edo oharra utziko du liburutegira bertan. Asapalak helaraziko dio hartzaileari.

Santutxu-Txurdinagaz gain, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako beste hamahiru herritan egingo da 'Irakurri, Gozatu, Oparitu' kanpaina. Helburu nagusia euskarazko liburuak irakurtzaletasuna sustatzea da, euskaraz irakurtzearen alde atsegina nabarmendu, "euskararen erabilera gozagarria sustatu, irakurtzeak eta oparitzeak (zein opariak jasotzeak) dakarten gozamenaren bidez", Topaguneako arduradunen hitzetan.

Gainera, euskara elkarteetako kideak liburutegietara hurreratzeko, eragile publiko eta pribatuaren arteko auzolana eta harreman sarea sustatzea eta euskarazko liburugintza bultzatzea dira beste helburuetako batzuk.

DANOK BATEKO GAZTEAK, KOPAN.-

Sekulako balentria egin dute Danok Bat taldeko jubenilek. Lehenengoz Espainiako Kopa jokatu dute, Ohorezko Mailako euren taldean hirugarren gelditu eta gero. Aurretik, Antiguoko eta Real Sociedad baino ez. Orain, Kopan, Coruñako Deportivo egokitu zaie. Lehenengo partidua Mallonan izango da maiatzaren 6an eta buelta Coruñan maiatzaren 13an.



AZURLEKU, AMAITUTA.-

Udal hauteskundeak hurreratzen diren heinean, herri lan gehienak ere amaitu egiten dira. Horixe gertatu da, barbarako, Azurleku auzoko urbanizazio obrekin. Behin bukatuta, etxe multzo horretan berdegune eta espaloi zabalagoak dituzte, baita autoen zirkulazio errazagoa ere. Galdu, aparkatzeko lekua galdu dute.



LARREAGABURU GAINA, PASEORAKO.-

Bilboko Udalak maiatzaren akaburako eduki nahi du prest Larreagaburu gaineko parkea. Aurrekontua ia hiru milioi eurokoa da eta zeregina goialdera igotzeko eta inguru hartan ibiltzeko bideak atontzea eta zuhaitzak, zuhaixkak zein belartzak egoki paratzea da. Ez da, oster, Eusko Jaurlaritzak agindutako parke erraldoiaren proiektua.

MAIATZEAN EROSI UDARAKO

TENERIFE	201,00 Euro
TUNEZ	262,00 Euro
PUNTA CANA	690,00 Euro
LANZAROTE	210,00 Euro

mikelizargi@euskalnet.net
Izargi Bidaiak
 Iburriaga, 69
 www.ibiltari.com Tel. 94 473 00 45
 Fax 94 41 2 07 26
 48004 SANTUTXU - BILBO

KAIKU
 Munduko Herrien Etxea
 Arsuaga 1 Santutxu

ADI
 ASESORIA FISCAL, CONTABLE, LABORAL, ARBIDUO, MERCANTIL
 Oleta, s/n - 48970 BASAURI
 Tel. 94 426 08 08
 Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
 Tel. 94 411 08 55
 adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza

UDABERRIKO BERTSO SAIOAK.-

Apirileko azken barikuan hasi eta gero, maiatzaren lehenengo hiru zapatuetan bertso saio bana izango da Karmelo plazan. Udaberriko Bertso Saioak urtero-urtero egiten da eta azkenaldion Santutxun hartu du egoitza sendoa. Santutxuko Bertso Eskolak antolatzen du, Bilboko Udalaren laguntzaz.



BEGOÑAKO TRANBIAREN BIDEA BERRITU DUTE.-

Urte hasieratik hona beharrez jardun eta gero, Bilboko Udalak amaitutzat eman ditu Begoñako tranbiaren bide zaharra berritzatzeko lanak. Beheko horma sendotu egin dute eta goiko bidea egokitu eta txukundu. Gainera, Amadeo Deprit kalea irteteko bidea eman diote. Begoñako kanposantua inguratzen du tranbiaren bide zaharrak.



OTXARKOAGAKO EKITALDIAK, AURRERA.-

Otxarkoago! izeneko programa aurrera doa. Maiatzean jaiotzak (Belenak) egiteko eskolak emango dituzte asteen hiru egunetan. Gainera graffitiak egiten ikasteko tailerra egingo dute maiatzaren 14tik 18ra. Sei orduko eskolak izango dira. Eta abenturazaleek espeleologia edukiko dute eskura maiatzaren 26an Troka elkartearen eskutik.

Elektriko eta industrial instalazioak

Proyectos Instalador
Presupuestos Autorizado

J. Ruiz

*Obras, mantenimientos y reparación de instalaciones
*Acumuladores, tarifa nocturna y preferencia bajo consumo
*Porteros automáticos y videoporteros
*Aire acondicionado

Juan de Gisaloia nº9 Local 1004 Bilbao Fax: 944111652-Tf: 656703855

BI-96.0-FM
Bilbo Hiria irratia
www.bilbohiria.com

2007ko apirila - 98. zkia.

Udala 1.300 auto hartuko dituzten bost aparkaleku egokitzen ari da Uribarrin, Atxurin eta Santutxun

Azken hiru urteotan beste lau garaje zabaldu ditu Txurdinagan, Begoñan eta Matikon

Bilboko Udalak 1.271 auto hartzeko moduko bost aparkaleku atontzen dihardu Uribarri, Zurbaranbarrin, Atxurin eta Santutxun. Plaza horiei duela gutxi zabaldutako Garai lorategiako garajeko 258 lekuak gehitu behar zaizkie.

Lur azpiko aparkalekuak atontzea Bilboko Udalaren azken lau urteotako lehenasunetako bat izan da. Eta hori errealitatean islatu da. Begoñako Errepublikako zaharreko auzoei dagokionez, azken hiru urteotan lau zabaldu ditu eta gaur egun beste sei egokitzen ari da. Denen artean, sei horiek bere baitan 1.271 ibilgailu hartzeko moduan egongo dira.

Sei horietatik hiru Uribarri aldean dagoz. Bata Udaletxe ondoan, Gas plazan hain justu. Etxe multzo berriak eraikitzeko lanak aprobetxatuz, 566 plaza izango dituen aparkalekua egiten dihardute. Obrak 2005eko urtarrean hasiko dira eta, ondo bidean, abenduan zabalduko



ditu atek. Berau da Bilboko Udala eraikitzen ari den handiena eta leku guztiak inguruan bizi direnentzat gorde dituzte.

ko da aparkalekura. Denetara 164 plaza edukiko ditu eta hauek ere ia denak salduta daude. Lanak 2008ko apirilera amaitu gura dituzte.

Uribarri eta Zurbaran artean, Zumalakarregiko tren geltokia egon zen lekuan bertan Bilboko Udaleko arduradunek Piedritas esaten dioten aparkalekua atontzen dihardute. Lan horiei zor zaie geltokiko igogailua zerura bidean bakartuta eskaintzen duen irudi harrigarria. Bertan hiru solairu egokitu dituzte 254 ibilgailuei leku egiteko. Hasi orduko plaza denak salduta eduki dituzte. Urrian inauguratu nahi dute.

Eta Uribarri eta Zurbaranbarri artean, Lezamako Trenbide Zaharrean, beste aparkaleku bat egiten ari dira. Kale horretatik ez ezik, Plentzia kaletik ere sartu ahal-

Atxurin, Hermanitas de los Pobres ondoan, beste aparkaleku bat egiten dihardute. Solairu bikoia, bere baitan 128 ibilgailu hartuko ditu. Irailean inauguratzekotan dabilza.

Santutxun, azkenik, Karmelo kalean 316 autorentzat ari dira lekua egokitzen. Lau solairuko aparkalekua izango da eta lekuen erdiak inguruan bizi direnentzat gorde dituzte. Salduta daude, honez gero. Beste erdia txandaketa partzelak izango dira, alegia, ordu batzuetarako erabiltzeko baino ez. Karmelo kaleko aparkalekua azaroan zabaltzeko asmoa daukate.

ARAZOAK ETA KEXAK

Bost horiez gain, azkenaldian beste lau zabaldu dituzte gurean: Otxarkoagan (Ugarte), Txurdinagan (Garai lorategiak), Begoñan (Polboretxebide) eta Uribarrin (Loruri zeharkalea). Baina hala ere, izan dira kexak eta arazoak euren inguruan. Kasu batzuetan, Begoñan berbarako, partzela gehienak saldu barik daude oraindik, prezioak eta gastuak lar altuak direlako.



E

R

R

I

K

A

R

I

A

K

R

I

K

23

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
berton

Justeugene, Euskalgune
Aitziber Iruña
Iduna Taldea
Urtzi Urrutikoetxea
"Mugitzen zirela, geroak
jarrioten dituz koloretakoak"
Utzi dauden harmina
hantzen

Miren Agur Meabe
"Euskal literaturan
aniztasuna eta
maila altua dago"

Eladio Montiel,
Otxarkoagako
abetesbataren
suzendaria

Mikel Alvarez,
mahatsorri bat
Ezevesteko
tontorrean

Iñanol Agirre:
"Boduak nolako
buztela janzteko
aspirantzak"

berton

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
hartu bertonean etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre,
48004 Bilbo
Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.
Izena:
Abizenak:
Kalea: Zenbakia:
Herria: Herrialdea:
Telefonia:
Bankua:
Kontu zenbakia (20 digito):

DOHAIN

Sinadura

TRASMOSOMOS (691 M.) ETA ESPALDASECA (698 M.) BALMASEDA


Balmasedara heltzen garenean, Erdi Aroko zubi ospetsuaren ondoan kokatuko gara. Apur bat geroago biragune baten ondoren trenbidea zeharkatu behar dugu, eta ezkerretarantz, errepide estu samarretik, LHko ikastetxera helduko gara.

Puntu horretan eskuinetik doan bidea hartuz, hamabost bat minutu barru asfaltatuta dagoen errepidea aurkituko dugu eta bertan Zornoza baserri oso luzea ere.

Baserriaren aurrez aurre burdin harizko hesi bat gurutzatuz bidexka hasten da. Sasiz beteta dagoenez, larretik igotzen da bidexka ondoan. Ate bat zeharkatuko dugu eta ondoren pinudian sartuko gara eta zuzen igoko gara beste larre bat aurkitu arte. Larre horretan ia erorita dagoen etxolaren ondotik jarraituz, Arbalitza lepora abiatuko gara.

Hemen Arbalitza mendiaren atzetik dagoen pista jarraituko dugu, pinu artean bi mugarri handi ikusi arte. Hemen bukatzen da pinudia eta argi eta garbi ikusten dira gailurrak, atzerago Arbalitza (693 m.) eta aurrerago zuhaixken artean Trasmosomos (691 m.) tontorra; mendi honetatik izen berbera duen lepo batera

jaitsiko gara eta berriro gorantz eta hamabost minutu geroago Espaldaseca mendia (698 m.) egina egongo da.
Ibilaldi honek guztira bi ordu inguru eramango digu.



Sastreria EDRO
IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO
Santutxu kalea, 37 www.bilbaoweb.com/Spedro
Tfona: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navigalia.com

HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE
GABRIELARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA
94 412 82 74

MESÓN
TURETXE
Santutxuko poteo gunean

MAD SCIENCE: ZIENTZIA ESKOLARA HURBILTZEKO BESTELAKO AUKERA

Gazte mahatsorriak dabilta zientzia zabaltzeko proiektu horretan sartuta



Zazpi eta hamalau urte bitarteko umeei zientzia modu erakargarri eta praktikoan hurbildu nahi dien enpresa da Mad Science. Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabara orain dela gutxi heldu bada ere, dagoeneko lurraldeko hainbat herri eta txokotan zientzia dibertigarria izan daitekeela erakusten dabilta.

Testua: Nerea Aburto
Argazkiak: Mad Science

Mad Sciencek hogeitau urte baino gehiago daramatza zientzia era dibertigarri eta ludikoan mundu osoko umeei hurbiltzen. 1985ean Kanadan sortu zenetik irakaskuntza zientifikoan egindako lanagatik hainbat sari eta aipamen lortu izan ditu. Nazioarteko erakunde honen baitan zientzialari, pedagogo eta beste aditu askok elkarlanean prestatzen eta berriztatzen dituzte munduko 22 herrialdeko zortzi milioi

umeen tailer, jaialdi, udaleku eta ekintzetako materiala.

Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan 2006an hasi dira lanean, eta, orduetik, euren tailerrak eskolaz kanpoko ekintza gisa, Karrantza, Gernika, Getxo, Barakaldo eta beste hainbat lekutako eskoletan eskaintzen dituzte. Astero, ume mordoa batu eta zientzia zaila eta gogorra barik, liluragarria eta ulertzeko erraza izan daitekeela erakusten diete.

Tailer eta ekintza horien helbururik nagusiena eskolan ematen diren zientzia ikasgaien edukiak hobetzea, indartzea eta sakontzea da. Horretarako, berrogeita hamar minutuko saiotan, umeak eta zientzia izaten dira protagonista bakarrik eta, besteak beste, dinosauruak, polimeroak, elektrizitatea, airea edo mineralak lantzeaz gain, umeek euren eskuez egindako zerbait eraman ohi dute etxera: kohete,



blandiblu, edabe magikoak..., denak ikasketa prozesuaren protagonista umea bera izan denaren erakusgarri.

Ekintza gehienak euskaraz dira, 5 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta, nahiz eta haur hezkuntzako umeentzat eta gazteentzat antolaturiko ekintzak ere eskaintzen dituzten. Ardatz nagusia zientziaren irakaskuntza ludiko eta praktikoa izanik, gehienak eskola eremuan garatzen dituzte. Hala ere, eskolaz kanpoko hainbat eskaintza dituzte: urtebetetze eta jaunartze jaietan, udaleku tematikoetan eta, batez ere, erakundeekin garatzen diren ekintza berezietan zientziaren ikuspegi berri hau zabaltzen dute. Momentuz, Mahatserrian ekintza hauek burutzen dituen eskola edo



ikastetxerik ez badago ere, ikasturte bukaerako jaietan Mad Scienceko tailerrak izango dituztenak badira, eta zenbait gazte mahatsorri urtean zehar ikasitako zientzietako edukiak modu dibertigarrian praktikatzeko aukera izango dute.

ZIENTZIALARI ZOROAK
Baina ekintza guzti hauek ez lirakeke berdinak izango umeen gidari izaten diren 'zientifiko zoroak' gabe. Ziortza Villegas gazte mahatsorria Txispita izeneko zientifiko zoroa da eta animazio

munduan izandako esperientziak bultzatu omen zuen zientzia mundu honetara hurbiltzen: "Proiektu honetan gabil-tzan pertsona gehienak animazio munduan ibilitakoak gara. Umeekin lan egitea oso aberasgarria da eta niretzat oso atsegina da ikustea umeak nola gelditzen diren esperim-entuekin liluratuta".

Gazteenak erakar-tzeaz gain, helduak ere harritu eta esperientziare-kin gustura gelditzen

omen dira: "Azaroko Zientziaren Astean hainbat emanaldi izan genituen Arriaga ondoan, karpa baten, eta harritzekoa zen ikustea nola pertsonak asko, gazte zein helduak, arratsaldero hurbiltzen ziren behin eta berriz ekitaldi berdinak ikuste-ra".

Mad Scienceko arduradun Cristina Arriolaren esanetan, "proposatzen ditugun ekintzek, umeei zientzia ikasgaien azaltzen zaizkien edukiak hobetu ulertzen eta barnet-ratzen laguntzeaz gain, euren gaita-sun zientifiko modu erraz eta atse-ginean garatzen laguntzen diete. Gure helburua zientzia hurbilagoa eta erakargarriagoa bihurtzea da."

GURASO ETA SEME-ALABAK, AKTORE

Bilboeszenak familia guztientzat antzerki eskolak eskaintzen ditu




Apirilean Bilboeszena aretoak familiakoentzat antzerki eskolen tailerrak zabaldu ditu. Larunbatero Juan Gardezabal kaleko aretoan ikastaroak ematen dituzte. Ikastaroen ardura Mama Creaciones taldearena da.

Testua: Ane Zabala Argazkiak: Iñigo Azkona / Berton

Bost urtetik 110 urtera zabalik daude eskolak, urteen kontua jendea animatu dadin egin dute, ateak zabalik baititu Bilboeszenak eskola hauetan. Aitite-amamak, seme-alabak gurasoekin, mutil laguna eta neska laguna ...guztiz irekiak dira ikastaroak.

Familientzako antzerki eskolen ideia Mama Creaciones taldeko kideena izan zen. Udalari ideia gustatu eta honez gero martxan dira antzerki eskolak. Sole, Nuria eta Ana dira Mama Creaciones taldekideak eta hirurek dute eskolen ardura. Gu Solerekin izan gara. Guzt honen sorrera Solek semea izan zuenean gertatu zen, "momentu horretan konturatzen zara gauza asko bananduta egiten direla.



FAMILIENTZAKO ANTZERKI ESKOLAK

Ama gisa, zure bizitza izan behar duzu, zure bizitza seme gisa, familia-ko bakoitzak bere bizitza zati banan-

dua izan behar du. Liburu askotan irakurri izan dugu: gorde zure momentua jolas-teko. Baina hor dator arazoa, noiz da hori, ze momentu aukeratzan dut nire semeekin jolasteko?".

Eskola hauekin bilatu nahi izan dute momentu bat konpartitzeko non benetan norberak bere seme alabekin jarduera batean parte hartzen duen. Zure seme alabak jolasten ikustea eta gainera zeuk ere berarekin jolastu al izatea.

JOLASAK

Konpartitzeko momentua da eta, gainera, antzerkiaren bitartez asko landu daiteke. Antzerki jolasen bitartez norberaren barruko kontu asko ateratzen ditugu, askatu egiten gara eta

hau famili erlazioan oso onuragarria izan daiteke elkar hobeto ezagutzeko.

Jolas teatraletan inprobisazioak lantzerakoan aktoreak bere barne bizitzatik atera behar ditu jolasak, istorioak... hor ikus daiteke norberaren erreakzio kapazitatea. Honek denak, familiarekin konpartitzeak, gehiago elkar ezagutzeko balio dezake, beti ere ondo pasatzen dugun bitartean.

Familientzako antzerki eskolek ez dute antzezlan bat muntatzeko nahia. Jolasteko gaitasunean oinarrituko dira klaseak; antzerki jolasak, kooperazio olgetak, entzumena eta aisi momentu berezia sortzea da helburu nagusia, ondo pasatzeko momentua sortu.

Eskola hauekin, beraz, adin ezberdinetako pertsonak antzerki mundura hurbildu nahi dituzte. Umeak askotan eramaten ditugu antzerkia ikustera baina gero zaletasuna alde batera utzi ohi dute. Esperientzia hauekin, ordea, antzerkiaren magia piztu nahi dute.

Gaur egungo gizartea telebista eta filmetako aktoreak ditu hizpide eta, erakutsi nahi digutenez, askotan askoz gertuago daukagu antzerkia. Antzerkiaren magia nolakoa den, zuzenean aktoreek zure aurrean pertsonaia asko gorpuzten dituzte eta istorioa zuri zuzenean kontatzen dizute, momentu eta une horretan ikusle denaren aurrean.



BILBOESZENA AUZOKIDEEI HURBILDU

Bilboeszenak auzora hurbildu nahi du. Bi urte bete ditu zabaldu zutenetik baina ez da oso ezaguna gure artean. Horretarako ateak zabaldu nahi dizkiete auzoei. Apirilean magia eta ipuin kontalarietara gaubeila antolatuta zuten eta pozik daude auzoan izan zuen harrerarekin. Maiatzean ere gaubeila gehiago antolatuta nahi dute Bilboeszenan, beti ere, antzerki esperientzia ardatz nagusia dela.

Apirileko azken astean hasi ziren eskolak. Lehenengo egunean eta, batez ere, hasieran isiltasuna izan zen nagusi, eskoletara hurbildutakoak lotsa galdu ezinik zeuden eta. Baina klaseak aurrera egin zuenean barreak entzuten ziren eta jendea lasaitu zen. Orain arte, guraso eta seme-alabak kontuan hartuta, hamar lagunek parte hartu dute antzerki eskola hauetan. Familia oso bat soilik animatu da ama, aita eta seme alabak etorriaz.

ROL ALDAKETA

Antzerkian hizkuntza, gorputz adie-

razpena, komunikazioa eta entzumena lantzen dira, besteak beste. Solek kontatu digunez, lehenengo egunetan zentzuak zabalduz entzumena landu zuten. Gerora besteekin ondo jolasten saiatuko dira.

Aurre iritziak alde batera utzi behar dira jolasten zauden bitartean. Aldamenekoa zure ama izan arren, ez dakizu momentu horretan nola erreakzionatuko duen. Hasi aurretik jakin izan dute etxetik dakartzaten rolak apurtu behar direla. Klase hauetan ez du balio baten aita edo bestearen seme izatea. Denak berdina izango dira. Rol hauek apurtuta, eskolak gidatzen dituen begiraleen eskuetan dago dena eta hori da benetan interesgarria irakasleentzat.

Bilboeszenan baziren umeentzako tailerrak, baita emakume helduentzat edo antzerki amateur tailerrak ere. Beraz, oraingoa bestelako eskaintza egin nahi izan dute. Apirilean hasi dira eskolak eta izena emateko aukera dago oraindik, klaseak irekiak daude. Gainera, probatzeko aukera badago eta probatu eta gustura ibiliz gero, jarraitu. Apirilean hasi eta uztaila bitartean larunbatetan bostetatik seiak bitarte izango dira eskola antzerkiak. Informazio gehiago telefono honetan, 94.433.50.42 edo bilboeszena@ayto.bilbao.net

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe
Mañari
Médico. M. Pedro Cortés, 9
48006 BILBAO
Telf. 94 411 99 33

GOJIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
TELEFONOAK:
630 08 09 38
659 45 16 22

horoskopoa



Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.

Panderoa joten onenetakoa zareala entzun dogu. Kontua da, inoren panderoa?



Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.

Loroak hiltzen hasi behar dozu orain? Eta zu ekologista izan zifan? Egin txorimaloarena egun batez eta ez da gehiagotan agertuko.



Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.

Spinning, bodyfitness, step, muskulazioa... Mens sana in corpore sano bai, baina gorputz osasungarria ez dau ezertarako balio burua galdu ezkeror.



Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.

Pasteltxoak, zukuak, menu bariatua, ... eta apopiloa pozarren. Egongo ez da ba!



Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.

Ea, behingoz egia entzun beharko dozu. Super-heroia izanda be, besteok bezelaxe zeure errondak paga behar dozuz.



Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.

Zurrumurru guztien iturburua zara. Bada, hona beste bat: jendeak badaki.



Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.

Ez zendun eguzki gehiago gura? Kanbio klimatikoak nahi beste ekarriko dotsu. Ez kexatu gero!



Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.

Aurpegia zurbil, ahoa siku, begirada galduta... Lasai, salbatuko gara!



Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.

Internetetik Hollywoodeko pelikula guztiak bajatu dozuz. Ikusi be egin beharko dozuz ezta?



Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.

Zure lige pinpirina begira dekozu. A ze pareta, baldarra eta dotorea!



Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra!

Errenta aitortpena ilusioaz itxaroten daben horietakoa zara. Zu zara zu!!



Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.

Aurrerantzean be, orain arte bezelaxe, aukeratuen artean egongo gara. Hemen, han edo Ingalaterran.

agenda

MAIATZAK 4

BARRICADA. KONTZERTUA.
KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

MAIATZAK 4

JATORKI ABESBATZA. KARMELO
PARROKIAN. 20:45EAN.
KANTU KANTARI PROGRAMA.

MAIATZAK 5-6

KALE MAGIAREN HIRUGARREN TOPA-
KETAK. TXURDINAGAKO KALEETAN.

MAIATZAK 8

THE REAL MCKENZIES. KONTZERTUA.
KAFE ANTZOKIA. 21:00ETAN.

MAIATZAK 11

PRESOEN ALDEKO MANIFESTAZIOA.
HERRIRA PLATAFORMA.
RITXI PLAZAN 20:00ETAN.

MAIATZAK 11

EUSKARIA ABESBATZA. KARMELO
PARROKIAN. 20:45EAN.
KANTU KANTARI PROGRAMA.

MAIATZAK 17

ETXE + THE USKIS. KONTZERTUA.
KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

MAIATZAK 18

TXORI KANTARI AHOTS ZURIAK
ABESBATZA. KARMELO PARROKIAN.
20:45EAN. KANTU KANTARI PROGRAMA.

MAIATZAK 19

SAN ISIDRO JAIK OTXARKOAGAN.
ARTAZURIÑA KALEAN.

MAIATZAREN 19-20

OROEL (1.770 M) JAKA (HUESCA).
MENDI IRTEERA. SANTUTXUKO
MENDIZALE TALDEA.

MAIATZAK 23

THE DUBLINERS. KONTZERTUA.
KAFE ANTZOKIA. 21:00ETAN.

MAIATZAREN 1TIK 26RA

'ABENTURA ANTZOKIAN'. ARRIAGA
ANTZOKIA. SAIOAK EUSKARAZ
ETA ERDARAZ.

MAIATZAK 31

GILKITXARO. 'HONOLULU LEKU BAT'.
ANTZERKIA. OTXARKOAGAKO
AUZO ETXEAN 19:30EAN.

